

ERLIJIOA EUSKAL UNIBERSITATEAN

PAULO AGIRREBALTZATEGI

Si Juan José Goenaga, en un artículo publicado en EGIN, afirmaba que "Universidad Vasca necesita un departamento de ciencias religiosas", lo mismo podemos afirmar que el fenómeno religioso, si quiere mantenerse en el cultura moderna, necesita de la Universidad.

Por eso es necesario plantear con seriedad el futuro del hecho religioso en la Universidad Vasca, que se está gestando en la UEU (Universidad Vasca de Verano), no como una imposición confesional, sino como estudio científico y crítico de la realidad religiosa que contiene la cultura tradicional del Pueblo Vasco y de una de las facetas ineludibles de la dinámica socio-cultural de nuestro pueblo hoy.

Desde luego no se trata de plantear en este momento el lugar de la Teología en una Universidad pública, sino de analizar el puesto que tienen las Ciencias de la Religión en general en el conjunto del ordenamiento de las Facultades e Institutos universitarios de la futura Universidad Vasca.

Uztailaren 17 hasi zen aurten Udako Euskal Unibertsitatea (UEU). Hamabost egunez iraun zuen. Bigarren egunean (Uztailak 18), Juan José Goenagaren artikulua bat irakurri nuen EGIN egunkarian. Hauxe zuen bere titulua: "La universidad vasca necesita un departamento de ciencias religiosas".

Oso gogo handiz irakurri nuen artikulua; nik neuk ere lehentxotik nuen horrelako kezka. Goenagak puntu-puntu eta garai-garai jo zuela uste dut. Ez nator orain artikulua hari erantzunen bat ematera; ez eta haren oihartzuna egitera; ez eta bi lagunen arteko elkarrizketa soil bat muntatzera. Udako Euskal Unibertsitatearen aurrean gai garrantziko bat planteatu zuela uste dut; eta gai horren azterketa eta eztabaida luzatu eta zabaldu egin behar dela gainera.

Aurrenik, ordea, ohartxo batzu egin nahi nizkioke Goenagaren artikuluari.

Ni ez nago Udako Euskal Unibertsitatearen "Comité ejecutivo" delakoan; horrelako izenekorik izan ere ez da UEU-n, nik dakidanez. Dena dela, ba da Idazkari bat, ba dira batzorde batzu, eta ba dira Saitetako zuzendariak ere. Neure aldetik, nahiko hurbil ibili izan naiz, Udako Euskal Unibertsitatea hasi zenetik. Horregatik, ohartzoren bat egiteko gauza naizela uste dut; ez, ordea, neure eta inoren defentsa egiteagatik, eta bai punturen bat edo beste bere lekuan uzteagatik.

Egia da UEU-ren programazioetan ia erabat kanpo gelditu izan dela Erljioaren gaia; baina ia erabat bakarrik, ez erabat-erabat. Lehen urtean behintzat programaren barruan zeuden bi hitzaldi, Erljioari aski lotuak: bata, Charritton-ek eman zuena; eta bestea, nik neuk eman nuena. Nereak titulu hauxe zuen: "Fedea eta kultura". Geroztik Jaunaren Deia aldizkarian argitaratu zuten. Bigarren urtean ez dakit UEU-ren programa ofizialean horrelako gairik ba zenik; dena dela, Euskal Elizari buruzko mintegi txiki bat egin zen. Geroztik alorrak eta sailak hobeto berezitu dira UEU-n; ete, nik dakidanez, "erlijio zientziak" ez dute beren sail propioirik eduki.


Batez ere Goenagak esaten duen hauxe ukatu nahi diot. Berak dio: "Por ello, creo en mi modesta opinión que es bastante grave que en la maqueta del Universo cultural de la futura Universidad Vasca, no haya un sitio, más aún, que sistemáticamente (nik neuk azpimarratzen dut) sea eliminado algo tan fuerte como es y ha sido el elemento religioso en nuestra cultura". Nik neuk argitu beharra daukat, "sistemáticamente" ez dela erlijioa baztertu; aldearantz, behin baino gehiagotan UEU-ren

arduradunek eskatu izan dutela, erlijioari buruzko saila muntatzeko. Neri ere esan izan didate. Eta dena dela, UEU-ren barruan, azken urteotan behintzat, beti izan da askatasun osoa, sail berriak programatzeko. Sail bakoitzean kezkatu eta lanean dabilenari utzi izan zaio, nahi izanez gero, UEU-n bere saila programatzea.

Zergatik ez da "erlijio zientzien saila" programatu, eratu eta landu, orduan, Udako Euskal Unibertsitatean? Goenagak berak ematen du hainbat arrazoin; egiazkoak eta egoki emanak direla uste dut. Baina besteren bat ere erantsi nahi nuke.

trina katolikoa" irakatsi behar zen ala ez; erlijioa -dotrina katolikoa-, ikasi beharreko gaia izan behar zuen ala ez. Beraz erlijioa ez da hartu kulturaren sail bezala, eta bai konfesio problema bezala.

Bide honetatik, gure inguruko Unibertsitateetan badira -edo izan dira- kapilauak edo zuzendari izpiritualak; baina ez da erlijio zientzien instituturik. Apostolutza edo proselitismoaren mailan jarri da erlijioaren arazoa Unibertsitatean, eta ez zientziaren mailan. Guzti hau eragozpena izan da -eta hala da-, Udako Euskal Unibertsitatean eta



ARRAZOIN GEHIAGO

Inoiz Joxe Azurmendik idatzia du, euskal kulturak erlijioaren kritika gutxi eman duela. Sarritan aipatu izan da euskaldunaren antikerikalismoa, etab. Baina erlijioaren kritika sistematikoa ez da landu izan. Horregatik erlijioa ez da hartu izan, posizio eta jarrera neutral eta kritiko batetatik aztertu daitekeen zerbait bezala. Hau eragozpen bat da, erlijioaren zientziak Unibertsitatean sartzeko. Bide bat urratu beharra dago, alde horretatik.

Bestalde, erlijioaren arazoa beste aldetatik ikusi izan da hemen inguruko Unibertsitate eta kolegioetan: hau da, erlijioa fede edo konfesio katoliko bezala hartu da. Orduan, erlijioaren arazoa zera izan da: Unibertsitatean "teologia katolikoa" edo "do-

geroko Euskal Unibertsitatean erlijio zientzien Institutua sartzeko.

Udako Euskal Unibertsitatean oraindik zientzi eta kultur sail asko kanpoan gelditzen dira zoritxarrez. Ez da eratzaileren erruagatik. Gauza nabarmena da, "giza zientziak" eratu gabeagoak dabilzala Udako Euskal Unibertsitatean erlijio zientzien Institutua sartzeko.

Udako Euskal Unibertsitatean oraindik zientzi eta kultur sail asko kanpoan gelditzen dira zoritxarrez. Ez da eratzaileren erruagatik. Gauza nabarmena da, "giza zientziak" eratu gabeagoak dabilzala Udako Euskal Unibertsitatean. Hauen artean, eratu gabeagoa gelditu da erlijio zientzien saila?

Baina zein erlijio sail? Egia baino egia-goa da, erlijioaren fenomenoak -nahi ala ez-garrantzizkoa dela oraindik Euskal Herrian.

Eta ukatu ezinekoa da, erlijioak garrantzi handia izan duela euskal kultura tradizionalan. Beraz, kulturaren azterketa, kritika eta estudioa egiten duen Unibertsitatean, erlijioaren fenomenoak bere lekua beharko luke; Euskal Herriari eta euskal kulturari dagokion.

Unibertsitatea baldin bada behintzat.

Baina erlijioaren zientziarik ba ote?

ERLIJIOAREN FENOMENOA ETA ERLIJIO ZIENTZIAK

Bada Fisika, fenomeno fisikoak estudiantzen dituena: Zientzia da. Bada Ekonomia, "fenomeno" ekonomikoak estudiantzen dituena: zientzia da. Fisikak nahiz Ekonomiak beren lekua dute Unibertsitatean; Fisikaren Fakultatea eta Ekonomiaren Fakultatea ezagutzen ditugu. Biak izan ohi dira Udako Euskal Unibertsitatean er, nolabait behintzat.

Baina erlijioaren fenomenoaren estudioa egingo duen zientzia espezifikorik ez da landu oraindik. Erlijioa estudioa daiteke Antropologiaren edo Etnologiaren aldetik, Psikologiaren aldetik, Soziologiaren aldetik, Historiaren aldetik, Filosofiaren aldetik. Baina oraindik erlijioaren fenomenoak ez du nahiko autonomia lortu, bere zientzia autonomoa lantzeko eta eratzeko modukoa: metodologia berezia eta propioa izango duen zientzia autonomoa, halegia.

Horregatik, erlijioaren "zientziak" aipatzen dira. Zientzia asko bateratzen dira, fenomeno berbera ikuspegi ezberdinetatik aztertzeko. Orduan, fenomeno hori azterten duten zientzien artean Institutu bat sor daiteke: "Erlijio zientzien institutua", halegia. Oraingoz behintzat honelako Instituturen baten premia dago Euskal Herrian. Horrelakorik ez dagoelako, Udako Euskal

Unibertsitatean ere zaila izan da Erlijioaren saila sortzea eta eratzea.

Erlijioaren inguruan sortu da, bai, zientzia autonomo bat: teologia da. Baina teologia konfesionala -edo interkonfesionala- da berez. Bere metodologia fedean oinarritzen da. Fedearen inguruan eratzten eta lantzen den gogoeta sistematikoa da Teologia: gogoeta sistematikoa eta logikoa delako, deitzen zientzia teologia.

Goenagak ez du eskatzen Euskal Unibertsitatean Teologiari ere lukua egitea. Teologiak ba du bere lekua, kulturaren barruan; baina leku oso berezia da. Beste erlijio zientziei beren lekua ematea eskatzen da. Eta horretan ni ados nator Joan Jose Goenagarekin.

Horretarako, uste dudanez, erlijio fenomenoaz kezkatuak dabiltzanak elkartu beharko dute; beraiek antolatu beharko dute erlijioaren saila Udako Euskal Unibertsitatean. Eta ez litzateke sail bazterrekoa izango. Soziologoek, antropologoek, psikologoek, filosofoek, historiagileek -eta teologoek ere bai- eskuhartu beharko lukete horrelako sailean. Baina teologoak ez dira aurrenak, teologo direlako behintzat.

ERLIJIOAREN ZIENTZIAK ETA ERLIJIOAREN KRITIKA

Zientziak berez izan behar du kritikoa. Erlijioaren zientziak ere bai. Dogmatismoak ez du balio zientzia jatorra egiteko. Erlijioaren fenomeno zientzia batetatik edo bestetatik aztertzeko ez dago erlijiosoa izan beharrik; marxismoa aztertzeko marxista izan beharrik ez dagoen bezala.

Inoiz entzuen izan diot lagun bati hauxe esaten, Hiztegi tekniko batean parte hartu

behar zuela adieraztean: "Hiztegi horretan marxismoari buruz artikuluren bat idatzi behar baldin bada, marxista izan beharko du idazleak; ala onhartuko al zenukete, kristautasuna -eta erlijioa bera- fededunon monopolio bihurtu izan dugu sarritan. Baina konturatu beharra daukagu, kristautasuna -eta erlijioa- fenomeno soziologikoa, historikoa, psikologikoa, etab. direla. Marxismoa berdin; soziologoa, historiagilea eta psikologia marxista ez baldin badira ere.

Goenagak arrazoina du, beraz, erlijioaren fenomenoak laikoan -eta erlijioaren kontrakoan- eskuetan uzteko gauza izan behar dugula esaten duenean. Aldi berean, fededun edo erlijiodun ez denak onhartu beharko luke, fededuna ere gauza dela erlijioaren zientzia kritikoa egiteko, beronen fedea edo dogma aparte.

Teologia ere kritikoa da, bereziki bere oinarri bezala fedea jartzen baldin badu. hain zuzen ere, fedea da erlijio forma eta adierazpide guztien kritikatzailerik zorrotzena. Sustrai-sustrai du, beraz, teologiak, bere indar kritikoa.

Euskal Unibertsitatea Unibertsitate publikoa nahi da. Baina, hain zuzen ere, instituzio publiko honetan, erlijioaren fenomenoak bere leku publikoa behar duela uste dut, erlijio zientzien Institutu bezala edo. Garai batetan, teologia beste zientzien guztien gailurrean erregina bezala jarri ohi zuten: kristianitatearen garaiak ziren. Joanak dira garai haiek, Jainkoari esker. Orain kultura sekularatuan bizi gara. Baina erlijioaren fenomenoak hortxe bizi da, gure kulturaren sail bezala gutxienez. Erlijioa ez da Teologiaren monopolioa; beste hainbat zientzia "laiko", kritiko eta "sekular" aztertzen dute, beste hainbat gairekin batera.

Horregatik, Euskal Unibertsitatean erlijioak ez luke bere barruti itxia ukan behar; beste guztien artean sail irekia izan beharko luke.


LIDER
PERMANENTE
DE
EXPORTACION

CALIDAD EN EUROPA



HERRAMIENTAS

ACESA
GARANTIA · CALIDAD



1970
1971
1972
1973
1974
1975
1976
1977...